

Euri zitala: testu bat, bi itzulpen, hamaika zalantza

NAHIA ZUBELDIA

Itzulpen lehiaketa batean parte hartzeak ekar ditzakeen buruhauste, zalantza eta pozen inguruko esperientzia kontatzen du artikulu honetan egileak, Itxaro Bordaren testu bat oinarri hartuta. Itzulpenaren zirrikituetan nola ibili den, orain kontent, orain galdurik, ekitaldi publiko batean beste itzultzaile baten lanarekin konparatu beharko zuen testua ontzen.



Joan den irailean, itzulpengintza lehiaketa batean parte hartu nuen. Alta, ez naiz, berez, lehiazale handia. Matrana Frantziako Akitania Berria eskualdeko itzultzaileen etxetik etorri zitzaidan proposamena, Itxaro Bordaren *Euri zitalari esker* eleberriaren pasarte bat itzultzekoa. Antton Harignordoquy lankide estimatuari ere lan bera proposatu zioten, eta helburua zen, gero, Itzultzaileen Nazioarteko Eguna kari, gure bi bertsioak jendaurrean konparatzea.

Hastapenean, doi bat beldurtu nintzen: ahari-talken irudia etorri zitzaidan, Antton eta biok plaza jendetsu baten erdian, elkarri adar joka. Zer buruko mina.

Bi aldiz pentsatua, nahiago izan nuen ene burua zezen-plaza batean irudikatu (noizbait hori idatziko nuenik ere!). Antton eta ni, elkarren ondoan, Bordaren zezen-testuari sinonimo eta metafora zitzak sartzen, kalkoen oihal gorria astinduz.

Duela hamabost bat urte ariketa bertsuan parte hartu nuen, EIZIEk gomitaturik: «Idazlea itzultzaileen lantegian» itzulpen tailerrean, Linazasororen *Hamaika kontu* itzuli behar izan nuen frantsesera, eta, ondotik, beste hiru itzultzaileekin eta idazlearekin batera, dudak eta hautuak aipatzeko parada izan genuen. Esperientzia zinez aberasgarria eta interesgarria izan zenez, 2024ko hau ere onartu nuen azkenean. Ez baitugu maiz, egia erran, beste itzultzaileekin itzulpen kontu zehatzetan luzaz sartzeko paradarik, bakoitza bere egunerokoan buru-belarri. Dudak jatorrizko testua idatzi duenarekin zuzenean aipatzea ere luxu bakana da, eta ezin izan nion plazer horri uko egin.

Ez zen erronka makala izan. Itxaro Borda ez da, nola erran, idazleetan garden eta arinena! Banekien ez zela korapilorik faltako. Baina bizitzan, oro har, aspertzea baino, saiatu eta huts egitea nahiago dut; beraz, beldurrak beldur, jo nuen aitzina.

Tarte bat utzi ziguten Anttoni eta bioi Bordak berak hautatu pasartea itzultzeko. Elkarrekin aipatzeko baimen oro ukatu ziguten, noski, sorpresa erabatekoa izan zedin.

Itzultzaileen Nazioarteko Egunean aurkeztu genuen lana, irailaren 27an, Baionan, Itxaro Borda bera bertan zegoela.

Saioaren bitxikeria bat aipatu behar dut, testuak sortu zizkidan buruhaustetan sartu aitzin: moderatzaile lanetan aritu zen gizona, Matrana elkarteko kide Cyril Laumonier, ez zen euskalduna; halaber, entzutera bertaratu zirenek, bizpahiru katu euskaldunek izan ezik, ez zekiten euskarazko hitzik.

Beraz, frantsesezko gure bi bertsioetan oinarritu behar izan zuten aipatuko genituen dudak hautatzeko, eta eni bereziki zaila iruditu zitzaidan pare bat kasu aipatu gabe gelditu zen.

Entzuleen eta moderatzailearen ondorio orokorra izan zen oso interesgarria izan zela saioa, eta jatorrizkoa ez ulertzeak itzulpenean are gehiago murgiltzeko parada eman ziela. Dudak ditut horretan, baina baikortasunaren abantaila badu, behintzat, ikuspuntuak.

Izenburua

Tituluak mundu oso bat hartzen du barne, liburua laburbiltzen du, nonbait, hiruzpabost hitzetan. *Euri zitalari esker*. Hiru hitz eta bi duda. Zorionez, *euri* hitza «pluie» itzuliko nuela argi nuen...

Itoizen aipua testuinguruan jarri nuen, hasteko:

Eremuko dunen atzetik dabil
zulo urdin guztiak miatu ezinik
eta **euri zitalari esker** bizi da

Bordaren liburuan, bi aldiz agertzen da: «Izpegi lepoaren oinetako lehen bihurguneetan, abesti hartako euri zitalak nituen amets» eta «Euri zitalez eta destino petralez egarri nintzen».

Hasteko, *-i esker* nola itzuli: «grâce à» ala «à la faveur de»? Bigarrenak, jasoegia iruditzen zitzaidan arren, frantsesezko kantu eta olerkietan badu lekurik («À la faveur de la nuit», Robert Desnos; «À la faveur de l'automne», Tété). Gainera, oso formula polita eta berezia iduri zait frantsesez. Eta, euskarazko titulua kantu baten erreferentzia denez, frantsesez ere keinu hori atxiki nahi izan nuen. Titulu horretarako, beraz, egokiagoa iruditu zitzaidan «grâce à» baino.

Eta *zitala*? Dozena bat aukera zerrendatu nituen, eta bata bestearen ondotik entseatu, aldagetan jantzi baten bila ibiliko banintz bezala. «Médiocre»? Arruntegia. «Misérable»? Gerrian tinkoegia. «Vile»? Jantziegia. «Sournoise»? «Perfide»? «Mesquine»? «Perfide» hitzari doilorkeria soinuan berean entzuten zaio; beraz, gorputzean ongien gelditu zitzaidana hura izan zen.

Hitz hurrenkeraz pare bat buruhauste pasatuta, *La perfide pluie* are harroagoa baztertu eta *À la faveur de la pluie perfide* izenburuarekin gelditu nintzen. Momentuan, kontentu. Gero, aurkezpenean ez zitzaidan hain egokia iduritu.

Anttonek *Grâce à la misérable pluie* itzuli zuen, eta uste dut, azkenean, zuzenagoa eta ego-kiagoa dela. Edo bien arteko hautsi-mautsi bat atxikiko nuke, beharbada, *Grâce à la pluie perfide*, iduri baitzait «misérable» hitza pasiboagoa dela «perfide» baino, intentzio gehiago sentitzen zaiola bigarrenari. Miserablea izatea gerta dakioke bati; aldiz, ekintzek egiten gaituzte zital.

Generoaz

Euskarak irakurleari generoaz ez arduratzeko askatasuna uzten dio; frantsesez, aldiz, gaztelaniaz bezala, nahitaez hautatu behar da pertsonaia ororen generoa.

Testu honetan, Donapaleuko adiskide bat aipatzen du idazleak, eta adiskide hura emakumezkoa ala gizonetzkoa den jakiterik ez dago. Frantseseratzean, Anttonek eta biok aukera ezberdina egin genuen. Nik maskulinoa jarri nion, eta Anttonek femeninoa.

Aitortuko dut zergatik eman nion lagunari gizon bisaia. Testuinguru pixka bat gehiago: «Begiak euskaraz ongi mintzatzeko eta idazteko metodo baten azal leunera erori zitzaizkidan: Donapaleuko adiskide ohi batek oparitu zidan, Aitorren hizkuntza sarraskitzen nuela pentsatzen zuelako». Dudan egon nintzen. Alde batetik, Itxaro Bordaren liburuetan emakumezko pertsonaiak dira andere eta jabe. Baina pertsonaiaren jarrera paternalista hori aski maskulinoa iruditu zitzaidan; zerbait hautatu behar zenez, eta idazleari aipatzerik ez genuenez, lagun donapaleutarra gizona zela erabaki nuen. Azkenean, aurkezpenean Bordak erran zigun Antton zegoela zuzen. Akabo ene teoria misandroa.

Generoaren arloan, bestalde, idazkera inklusibora jo ala ez ere erabaki behar zen. Onartu behar dut ez dudala biziki gustukoa frantsesetzko idazkera inklusiboaren ikur nagusia den erdiko puntua. Gaztelaniazko «les alumnes» aterabidea polita egiten zait; frantsesetzko puntuazio marka berri horrek, aldiz, irakurketa tratatzen duela iduri zait. Irakurtzeko arazoak dituzten haurrentzat ez dakit hain inklusiboa den: «Les travailleur·euse·s indépendant·e·s» bezalako gauza aski itsusiak ateratzen dira, gogoz kontra idazten ditudanak. Ez dut, zorigaitzez, aterabide hoberik, frantsesa aski lohituia baita genero bereizketa horretan.

Dena den, kontua da erabaki behar zela idazkera inklusiboa erabili ala ez. Alde batetik, Itxaro Borda feminista da, eta banuen susmoa hark erabiltzearen alde eginen lukeela. Baina, bestetik, prentsa jakin batean eta saiakeretan ez bezala, eleberrietan oraino guti ikusten da erdiko puntua. Zorionez, Bordak berak pista bat eman zigun erabiltzearen alde; pasarte horretan, berantago, narratzaileak bere buruari hau erraten dio: «Hoberik ez dün/k». Hain pista argia ikusteak zama bat kendu zidan bizkar gaineretik. Gehiago pentsatu gabe, oparia hartu eta erdiko puntuari ongiatorria egin nion.

Euskalkiak euskaldunoi

Euskalkien kontua aisita balitz, Bordak ez ditu arruntenak hautatu. Elkarriketa berean, pertsonaia bat zaraitzueraz mintzo da, eta besteak xiberotarrez erantzuten dio. Frantsesetzko *patois*

bat sartzea bururatu zitzaidan, baita ideia laster baztertu ere, ez bainion zentzurik ikusi baliokiderik gabeko aldaera bat sartzeari. Ahozko hizkeran idatzi nituen, baina irakurleari ezer berezi zehaztu gabe. Dolu batzuk egin behar dira, eta honekin ez nintzen luzaz tematu (ikus bukaerako testu osoa).

Oin-oharrik?

Beti sartzen zaio noizbait itzultzaileari oin-oharrak gehitzeko gogoia. Aitzineko elkarrizketan, hain justu, Anttonek oin-oharrak gehitu zituen, jatorrizko testuan zein euskalkitan ari ziren zehazteko. Dena den, oin-oharren kontua uste dut argialetxeen arabera izaten dela, hein handi batean; gure kasua ez zen, beraz, erreala. Baina testuko beste bi momentutan sortu zitzaidan duda, sartu ala ez.

Itxaro Bordak «Aitorren hizkuntza» aipatzen du gorago eman dudana adibidean, Donapaleuko lagunaren iritziaz mintzo denean. Eni, kasu horretan, iduritu zitzaidan testuinguruak informazio aski ematen ziola irakurleari; frantsesek ulertuko zutela haiek «la langue de Molière» duten bezala guk Aitorrena dugula.

Aldiz, beste pasarte batean, narratzaileak bere etxea izan dena deskribatzen duelarik, honela dio: «Sukalde zapala zuen, leihotik Madalena tontorra ageri zen, *ezkaratz* zabala eta hiru logela (...)». Hemen, bai, oin-oharra egokia iruditu zitzaidan. Izan ere, *ezkaratza* frantsesera ezin itzulia ikusten nuen, «entrée», «hall d'entrée» ala «salle d'entrée» jarriz gero nehork ez baitzuen ezkaratzen lurrezko zola bereizgarria irudikatuko; eta bere horretan azalpenik gabe uztea opakuegia iruditu zitzaidan. Jakinez, gainera, euskal etxalde tipikoa deskribatzen ari dela narratzailea, eta horrek garrantzia duela istorioan, oin-ohar hau gehitu nion: «large cour d'entrée typique des fermes basques».

Soinuekin borrokan

Beste zailtasun bat, estetikarekin zerikusia duena: «Neke zitzaidan onartzea mintzaira bat ongi edo gaizki erabil zitekeelako sineste hori, batbederak beleekin bezala eleekin eta aditz trinkoe-kin harreman hain intimoa harilkatzen zuenean». Esaldiaren bigarren erdi horrek bi buruhauste eragin zizkidan.

Lehena, *beleekin bezala eleekin*: soinu errepikapen zerbait atxiki nahi nuen, eta, ideian ere, animaliekin dugun harremanaren gisakoa izan daitekeela hitzekin duguna.

Aitortu behar dut hor ere ez nintzela arras satisfos atera. Errimadun hitz parean atzeman nuen, «animaux» eta «mots», baina esaldiaren antolaketan asonantzia jokoa galdu zen: «comme avec les animaux, chacun-e tisse avec les mots».

Esaldi horrek bazuen bigarren korapilo bat: aditz trinkoen afera. Frantsesez «verbes synthétiques» jartzeak ez zukeen zentzurik, frantsesdunei ez baitzaie batera kontzeptu ezaguna (trinkotasuna, oro har, ezin erran frantsesaren berezko ezaugarria dela!). Frantsesez pareko balioa

duen zerbaiten bila ibili nintzen, eta, azkenean, subjuntibora jo nuen: euskaraz aditz trinkoek bezala, frantsesez subjuntiboak badu jaso itxura; gero eta gutiago baliatzen da, eta errango nuke baliatzen dakitenek harrokeriari lotu atxikimendu berezia diotela.

Honela atera zen, beraz, esaldia:

J'avais du mal à accepter cette opinion selon laquelle l'usage d'une langue pouvait être bon ou mauvais, alors que, comme avec les animaux, chacun-e tisse avec les mots et les subjonctifs une relation hautement intime.

Bordako esaldi loretsuak

Goazen testuko pasarte loretsu (eta arantzatsu) batera.

Hiru hamarkada lehenago ikasi nuen zubererara bueltatuko nintzen. Ideia garatzen nuenean, ene bakartasunean, halako argitasun batek gatibatzen zidan garuna: zoriontsu sentitzen nintzen, belatxen pare hegaldatzen ziren sintaxiak, labana zorrotz zebilen perpausen ironia, Santa Graziko hartzaren urratsetan lehertzen zen fonemen kordela.

Errango nuke alabaren buruan zorriak atzeman izan ditudan aldietako sentsazio bertsuak zeharkatu ninduela: «Badut istant batekoa!». Kopeta-argia jantzi eta ile artean bilaka hasi nintzen. Bazen lan argitasuna gatibatzen: oximorona; sintaxiak belatzen pare; ironiaren pertsonifikazioa; Santa Graziko hartzaren erreferentzia ezezaguna; fonemen kordelaren irudia. Eta zorriak azkazalaz zartatzeak ematen duen plazeraz ibili nintzen bakoitzarendako baliokide bila:

- *halako argitasun batek gatibatzen zidan garuna*: «une sorte de clarté envahissait mon cerveau», «s'emparait de mon cerveau», «assiégeait mon cerveau»? Azkenean, «envahissait» hautatu nuen.
- *belatxen pare hegaldatzen ziren sintaxiak*: «mes syntaxes» ala «les syntaxes»? Frantsesak aiseago hartzen ditu posesiboak, eta hor beharrezkoa iruditu zitzaidan. Metaforari dago-kionez, bere horretan itzuli nuen: «mes syntaxes s'envolaient telles des faucons».
- *labana zorrotz zebilen perpausen ironia*: ironiari ekintza aditza erantsi nion, pertsonifikazioa mantentzeko. Beraz: «l'ironie de mes phrases brandissait sa lame aiguisée». Kontent gelditu nintzen *brandir* aditzaren adierazkortasun indartsuarekin.
- Santa Graziko hartzaren erreferentzia ez nuen atzeman, eta aski laster erabaki nuen horren dolua egitea. Saioaren egunean, Bordak azaldu zigun Bedaxagarren kantu batean agertzen zela hartza. Hona kantua:

Hartzaren kantorea

Malür bat heltü zaikü Basabürüan
Egiaz erraitera Santa Grazian

Prima eder bat hartzak usuki Pusunpes altean
Bena hanitx irus izan da jan ez düanean.

Otsoa izan balitz harakoitia
Ihork aski zükean horaren haxitzea
Bena hartzari nor leiteke mentüra haxitzera
Zeren eta hura beita oro malezia.

Prima handi haren aflijitüa
Egin zereionean hartzak usukia
Mentürüz eta koste(re)n ziozü kolpe hura bizia
Gangrenatzen aisa beita hartzaren usukia.

Erran Maider, beha hadi ene erranari
Peko eihera borta zerra ezan hobeki
Hartz handi hura horra bazain Ehüsarre aldeti(k)
Zepo (h)on bat heda eta hatzamanezan zankoti(k).

Konplitü direnean hilabeteak
Lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatziak
Sendotüren zi(ri)ozü primari dolorea
Eta gero kantatüren Hartzaren kantorea.

- *fonemen kordela*: kordela hitzaren baliokide gisa, Elhuyar hiztegiak *corde*, *cordeau* proposatzen ditu. Hala ere, nik «cordelette» hautatu nuen, iduri baitzait hobeki ikusten direla «cordelette» baten gainean objektuak (hemen, fonemak), bata bestearen gibeletik loturik. Beraz, «mes cordelettes de phonèmes tonnaient au rythme des pas de l'ours de Saint-Engrâce». Anttonek beste bide batera jo zuen; doi bat gehiago urundu zen, eta polita iduritu zitzaidan: «la cascade de phonèmes dévalait la piste de l'ours de Saint-Engrâce». Uste dut fonema kontu denez soinuari eman niola garrantzia, eta horregatik jo nuela eremu semantiko horretara, «tonner» eta «ryhtme» hitzekin.

Honela gelditu zen, beraz, ene esaldia:

Je reprendrais mon souletin, appris trois décennies plus tôt. Quand j'élaborais cette idée, dans ma solitude, une sorte de clarté envahissait mon cerveau: je me sentais heureuse, mes syntaxes s'envolaient telles des faucons, l'ironie de mes phrases brandissait sa lame aiguisée, mes cordelettes de phonèmes tonnaient au rythme des pas de l'ours de Sainte-Engrâce.

Beste esaldi baten hitzak dantzan jo eta su ibilarazi nituen, zu honat, zu harat, zuek bukaerara, hau berriz hastapenera: «Maiteko nuen, maiteko nuenez, Joana kuttunak apailatzen zidan bizimodua, deus gabe, edo hain gutxirekin, baina behar nuen guxtiarekin». Egiari zor, hasiera-

ko «maiteko nuen, maiteko nuenez» esamoldea ez nuen ezagutzen. Dudan egon nintzen, «maiteko nuen, noski maiteko nuela» erran nahi zuen, ala «maiteko nuen, maiteko ote nuen?».

Azkenean, «il me plairait, il allait me plaire» jarri nuen. Aukera interesgarria iruditu zitzaidan errepikapena atxiki eta bere burua konbentzitzen saiatzen ari denaren inpresioa emateko. Kuriositate handia nuen Bordarekin hori aipatzeko. Baina, azkenean, pasarte hori ez zenez moderatzaile ez-euskaldunak hautatu zituenen artean, aipatu gabe gelditu zen.

Anttonen bertsioari begiratu nion, eta «j'allais aimer, j'allais vraiment aimer» jarri zuela ikusi nuen. Ene bide bertsutik jo zuen, beraz. Saiotik landa, Bordari galdetu nion, eta hark erran zidan «maiteko nuen, maiteko ote nuen?» erran nahi zuela.

Esaldi horrek bigarren zatian ere korapilo bat zeraman: «deus gabe, edo hain gutirekin, baina behar nuen guztiarekin». Hastapenean, literal jokatu nuen: «sans rien, ou avec si peu, mais avec tout ce dont j'avais besoin». Baina, berriz irakurtzean, ez zitzaidan polita iduri, eta beste molde batera itzulikatzea erabaki nuen. Honela gelditu zitzaidan: «Il me plairait, il allait me plaire, le mode vie que ma Joana chérie me concoctait, dépourvu de tout ou presque, mais pourvu de tout ce dont j'avais besoin». «Pourvu»/«dépourvu» horiekin gorde nuen errepikapena.

Baina, azkenean, hor ere, ez dakit ez ote nuen burua sobera hautsi. Egun, lehen bertsioa hobe iduri zait; Anttonek horren aldeko hautua egin zuen.

Minbera hitzarekin ere interesgarria izan zen jalgi zen gogoeta: «Joana Garraldak halaber, Zaraitzuko euskalkia lantzen zuen, arraiki, euskal hizkuntzaren aberastasun minberari omenaldi hunkitua eskainiz». Hitzak bi adiera izan ditzake: erraz min hartzen duena, ala minez dagoena («zangoa minbera dut»). Anttonek eta biok ez genuen hautu bera egin; hark «la délicate richesse» jarri zuen; nik, aldiz, «la richesse meurtrie». Nahiz biak izan egiak, euskararen aberastasuna franko ahuldua izateak eraman ninduen hautu horretara.

Errazen plazera

Batzuetan zer goxo den lehen hautua egokia kausitzea eta horretan gelditzea, euskaraz funtzionatzen duena frantsesez ere martxan izatea. Testu horretan, aski guti gertatu zait, baina bat behintzat gogoan gelditu zait: «arduradunak argira eta justiziara ekartzeko betekizuna». Euskaraz argira eta justiziara «ekar» daitekeen bezala, frantsesez «mettre» aditzarekin egin daiteke. Segidan bururatu zitzaidan, eta hain ongi ateratzeak mesfidantza sorturik, frantses akademiara jo nuen badaezpada; baina bai, «mettre en lumière» eta «mettre en justice» biak baliatzen dira eta zuzenak dira; beraz, «mettre en lumière et en justice les responsables» jarri nuen, irriño bat ezpainetan.

Irriñoaz ari naizenez, beste keinutxo bat aipatu nahi nuke, ene buruari egin nion oparitxo bat. Baratzedun etxea izanen duela aipatzen duenean, honela bukatzen du paragrafoa Bordak: «Baratzearikiko etxea ukanen nuen nik ere, oinarritzko euskaldunaren betidaniko ametsa egiaztatuz, eta ez nuen hutsik egin behar». *Huts egin* horren baliokide bila ibili nintzen, «échouer», «passer à côté», «me tromper», eta, azkenean, «me planter» hautatu nuen, *planter* aditzak «lan-

datu» ere erran nahi baitu, eta polita iduritu baitzitzaidan, baratzeari buruzko esaldian. Banekien inork ez zuela harrapatuko hautu horren zergatia, eta beharbada ene pertsona gehiegi sartzea izan zela, baina onartu behar dut gogotik egin nuela.

Estilo kontrastatua

Ariketan behin eta berriz gatazkak sortu dizkidana hizkuntza mailarena izan da. Itxaro Bordak badu paradoxa hori, nik uste: alde batetik, estilo aski jantzia, hiztegi berezi eta esaldi luzeekin, eta, bestetik, tarteka, nolabaiteko gordintasuna. Horiekin dantzan ibili naiz, esaldi batean galdua beste batean orekatzen saiatzen.

Hala, narratzaileak Frantziako presidentea aipatzen du momentu batean, hitz hauetan: «Biba hi, biba Manu!». Frantsesez bururatu zitzaidan lehena «Bravo Manu, bien joué !» izan zen. Baina presidenteari hika mintzatzeak garrantzi handia du, eta, frantsesezko horretan, nahiz izenez deitzea ezohikoa izan, «tu» hori eskas zen. Beraz, hurbiltasun hori azpimarratzeko eta euskarazko errepikapena atxikitzeko, «Bravo Manu, bravo à toi !» hautatu nuen. Kasu horretan, nago ez ote nuen guti gorabehera asmatu.

Azken esaldiarekin bukatu genuen saioa, eta nik ere horrekin bukatuko dut esperientziaren kontakizun hau. Ene azken alabak bi urte eta erdi ditu. Azkenaldian, egunak «zendako»-ka pasatzen ditu, eguneroko tema akiezinean, azken orduko azken minutua arte («Zendako lo egin behar dut orain? Zendako egongelara zoaz?»). Testu horrek haur tematiaren inpresioa eman zidan, azken hitzeraino ez baitzidan atsedetik eman: «Zenbait egun lehenago, preseski, Baionako merkataria karrika batean, Martiren alarguna gurutzatu nuen, beltzez bezti, triste alabaina, begitartea lurrera».

Azken hitz pareta idatz, ezaba eta berriz idatz ibili nintzen: «Le visage tourné vers le sol»; ez, «le regard au sol», beharbada. Noizbait, *prosterné* hitzaren argia piztu zitzaidan. Hiztegian begiratu, eta definizio hau atzeman nuen: «Prosterner: courber et abaisser vers la terre». Arrunt egokia iruditu zitzaidan, eta, doi bat jasoa izanik ere, hori atxiki nuen, eta kontent. Baina hor ere, azkenean, jasoegia!

Zenbait hilabete pasatu diren honetan, oro har korapilo gehiegi egiten ibili nintzela ohartzen naiz. Bordak berak «les yeux au sol» gomendatu zuen, eta arrazoiarekin.

Dena den, izerdi horiek guziak gustura partekatu genituen, nik uste, Anttonek eta biok, eta uste dut entzuleei ere interesgarria egin zitzaizela gurekin hitzen zezen-plazan pasatu zuten tarteak. Plazera iraunarazteko, azkenean, itzultzaileak baino gehiago baikara, Itxaro Bordaren zezenari belarriak eta buztana utzirik, denak elkarrekin trago bat hartzera joan ginen.

Jatorrizko testua Susa argitaletxearen webgunean kontsulta daiteke. Hor duzue ene frantsesezko bertsio osoa, Bordak berak eta egun hartako gogoetek eragin aldaketak gehiturik:

Dans mon refuge de quarante mètres carrés, je me dirigeai vers les étagères de livres: qu'allais-je garder? Qu'allais-je jeter? Avait-on le droit de bazarder des livres? N'avaient-ils pas quelque chose de sacré? Et si je les conservais absolument tous? Mes yeux se posèrent sur la couverture lisse d'une

méthode de bonne expression orale et écrite en basque, offerte par une ancienne amie de Saint-Palais, qui considérait que je massacrais la langue d'Aïtor. J'avais du mal à accepter cette opinion selon laquelle l'usage d'une langue pouvait être bon ou mauvais, alors que, comme avec les animaux, chacun-e tisse avec les mots et les subjonctifs une relation hautement intime. Il y avait autour de nous trop de juges, trop de grandes gueules, qui rejetaient constamment la faute et la responsabilité sur les autres et c'était toujours nous, les Basques ordinaires, les responsables de leurs innombrables misères. Je balançai le livre de recommandations dans le sac poubelle.

À la ferme Erratzü, personne ne me dirait comment vivre, comment réfléchir, comment causer, à qui, avec qui, de quoi. Je reprendrais mon souletin, appris trois décennies plus tôt. Quand j'élaborais cette idée, dans ma solitude, une sorte de clarté envahissait mon cerveau : je me sentais heureuse, mes syntaxes s'envolaient telles des faucons, l'ironie de mes phrases brandissait sa lame aiguisée, mes cordelettes de phonèmes tonnaient au rythme des pas de l'ours de Sainte-Engrâce. Joana Garralda aussi cultivait allègrement le dialecte de Zaraitzu, rendant un hommage ému à la richesse meurtrie de la langue basque.

Le morceau *Phaedra Out-Take # 2* avait commencé. Je pris dans mes mains le livre *Les Guérillères* de Monique Wittig. Cet ouvrage que j'avais tellement aimé me faisait encore frissonner. Je le lisais n'importe où, à tel point que je pensais n'avoir besoin d'aucun autre livre. J'aimais le cran qui jaillissait d'entre ses pages, l'aiguillon de ses clameurs et de ses revendications et la nature épique exaltante qui le traversait. Dans mes moments d'égarement, je m'en remettais à ce livre, dans l'espoir qu'il me montrerait le chemin.

Proust, Dostoïevski, Woolf et Rimbaud, j'allais les garder. Les autres, je pourrais les trouver en ligne ou à la médiathèque publique de Tardets, à condition qu'il y en ait une. À vrai dire, mes éditions étaient de piètre qualité et auraient largement pu servir à alimenter les feux des rudes soirées d'hiver. Je n'avais pas de quoi fanfaronner, ni avec mes amis ni lors de mes enquêtes, quand je me retrouvais face à la bibliothèque de certains clients : ils possédaient des ouvrages en cuir, qui arboraient en lettres d'or le titre et le nom de l'auteur. Je ne les enviais pas le moins du monde. Et puis à Erratzü je n'aurais pas vraiment le temps de lire...

J'étais au chômage depuis peu quand Joana m'appela pour me proposer de vivre avec elle. Nous avions été renvoyé-e-s par l'entreprise d'agents d'entretien de la ville de Bayonne, Karim, Dédé et moi. Nous approchions de la soixantaine et pour la direction, des vieux-eille ridé-e-s comme nous n'étaient plus aptes au travail. Dès son arrivée au gouvernement, le président Macron avait aussi modifié les règles d'obtention des allocations chômage : il avait supprimé aux plus riches l'impôt sur la fortune et raccourci aux chômeurs la durée de perception des droits : elle est belle la justice, d'une pierre deux coups, bravo Manu, bravo à toi !

Dans le genre, on fait pas mieux ...

Les battements du cœur électronique s'unissaient dans mes oreilles aux bulles de l'eau bouillante, à la faveur des mélodies de Tangerine Dream. Elles ravivaient ma mémoire : des larmes coulaient sur nos joues alors que nous venions d'accomplir notre dernière tournée de collecte des déchets. Avec Dédé, j'avais appris à apprécier l'odeur de pourriture des ordures. Ce qui était insupportable, c'était celle du gaspillage de la société de consommation, qui nous collait à la peau, parfois jusqu'à la nausée. Nous finissions par vomir, accroché-e-s l'un à l'autre, cherchant un peu de réconfort.

Dans la maison que Joana Garralda avait achetée, au moins, il n'y aurait rien de cela. Elle possédait une cuisine basse de plafond, la fenêtre offrait une vue sur le sommet de la Madeleine, elle avait un large *ezkaratz*¹ et trois chambres assez grandes pour avoir chacune la sienne et pouvoir, si toutefois nous avions des ami-e-s, en inviter à passer le week-end avec nous.

Évidemment, il y avait aussi un potager, accolé à un humble pommier. C'était là que j'allais donner de la pioche et de la faux, plutôt que d'écouter de la musique et de lire des livres pornographiques. J'allais moi aussi avoir une maison avec potager, conformément à l'éternel rêve du-de la Basque moyen-ne, et je ne devais pas me planter.

— Allô, Joana, j'arrive ...

— T'viens quand ?

— J'sais pas, le mois prochain, mettons.

— J'vais préparer ta chambre ...

« Bien, bien », me répétais-je en posant le combiné. Et voilà ... Je me préparais à déménager à Erratzü, des étoiles plein la tête. Sur mon portable, j'inspectai immédiatement les photos envoyées par Joana, en plus du corps de ferme en bon état et du potager attendant, je distinguai un four à pain à l'intérieur même de l'abri à bûches : il me plairait, il allait me plaire, le mode vie que ma Joana chérie me concoctait, sans rien ou presque, mais avec tout ce dont j'avais besoin. Au fond, que me fallait-il de plus qu'un peu d'amour, la chaleur du feu de bois et le scintillement du soleil froid aux aurores ?

Je jetai les ouvrages de Maria Mercè Marçal et Marguerite Duras dans un carton, ainsi que les films *Xora* et *Fargo*, les trois disques durs externes où se tramait l'ensemble de ma pensée et l'appareil photo numérique commode que j'utilisais parfois pour mes enquêtes. Soudain, j'aperçus le carnet de ma dernière recherche, entre les romans *Dune* et *Hyperion*.

Je n'osais pas le toucher, car j'avais failli à mon devoir de mettre en lumière et en justice les responsables du suicide de Marti d'Otsabide. Je n'avais pas réussi. Je devais l'admettre. Justement, quelques jours plus tôt, dans une rue commerçante de Bayonne, j'avais croisé la veuve de Marti, vêtue de noir, triste évidemment, les yeux au sol.

Itxaro Borda
Grâce à la pluie perfide (2021)
Extrait du chapitre 2

1. Large cour d'entrée typique des fermes basques [ndt]